



## PRENSA OHARRA

### **18,00AK. PARTE-HARTZE ETA GORABEHEREN BALANTZEA**

Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailaren datuen arabera, arratsaldeko 5etan hautesleen parte-hartzea %48,82koa izan da. Horrek esan nahi du parte-hartzea 2005ean baino %0,19 handiagoa izan dela.

#### **Parte-hartzea Lurraldeka**

Iturria: Herrizaingo Saila

Boto portzentajea, 17:00.

% desberdintasuna 2009-2005

2009 2005

Euskadi 48,82 48,63 +0,19

Araba 47,11 47,28 -0,17

Bizkaia 50,94 48,25 +2,69

Gipuzkoa 46,04 49,86 -3,82

#### **Gorabeherak**

13:00ean emandako komunikazioan adierazi denez, goizean Ertzaintzak bi pertsona atxilotu ditu eta beste 23 identifikatu eta euren aurkako eginbideak zabaldu ditu, bozketa oztopatzeagatik, legez kanpo utzitako hautagaitza baten bereizgarriak eramateagatik edo talde horretako txartelak banatzen saiatzeagatik. Halaber, Ertzaintzak 16 pertsona identifikatu ditu Bilbon eta Eibarren, guztira, bozketak iraun bitartean hiru hautagai eta zinegotzi bat zirikatzeagatik.

Arratsaldeko lehen orduan, Ertzaintzak bi pertsona atxilotu ditu Donostian; eta delitua egitea leporatu die bati Gasteizen, eta beste hiruri Zarautzen, legez kanpo utzitako hautagaitza ekintza bidez sustatzeagatik.

Guztira, 47 izan dira gorabehera horietan inplikaturako pertsonak